

Zientzia politiketan lizentziatua eta komertzial lanetan aritutakoa, azkeneko urteetan kazetari *kanaia* bilakatu da Igor Meltxor (Ortuella, Bizkaia, 1978). Hiru liburutan ari da orain lanean: bata ustelkeriaren ingurukoa Tasio marrazkilariarekin elkarlanean, bestea Gipuzkoako errauste plantarekin lotutakoa, eta hirugarrena Cabacas auziaren gainekoa. Ikerketa kazetaritza egiten jarraitzeko gogoz dago, "bataila emateko gogoz".

Nongoak dira zure gurasoak?

Aita Salamancakoa da eta ama Extremadurakoa. Haurrak zirela etorri ziren Meatzaldera bizitzera, eta ez ziren itzuli. Bizitza osoa egin dute Ortuellan. Denok gara Meatzaldekoak.

Nola azalduko zenioke kazetaritzan hasten den gazte bati nor den Pepe Rei?

Hitzaldietan nabaritu dut gazte askok ez dakitela nor den Pepe Rei. Niretzat ikerketa-kazetari konprometitua izan zen, eta hark bazekien nola ikertu behar ziren politika munduko estoldak eta ustelkeria. Pepe Reik traba nabarmena egiten zien Euskal Herriko zein Espainiako eliteei. Jazartua izan zen, eta makina bat aldiz espetxeratu zuten. Rei gogoratu beharreko kazetaria da, eta egin zuen lana goraiatzekoa. Estoldak agerian uzteko egin zuen lana ezin da ahaztu.

Nola dago orain?

Laguntza behar du eguneroko bizitza egiteko. Gurpildun aulkian dago, eta ez dago idazteko moduan.

Uztailean hogeitau urte bete ziren *Egin* itxi zutenetik. Zer sentrazio sorrarazten dizkizu efemeride horrek?

20 urte neuzkan itxi zutenean, eta amorrua sentitu nuen bere garaian. Jose Maria Aznarren esaldi hura oroitzen dut: "Uste zuten ez ginela ausartuko". Ostean gauza gehiago ikusi genituen. Adierazpen askatasunaren aurkako eraso oso handia izan zen hura. Iñigo Iruinen elkarrizketa batean irakurri berri dut estatu erabaki bat izan zela, garzonada bat baino gehiago. 1998ko uztaileko itxieraz gain, gogoratu behar da EAJren aldetik aurretik erasoak egon zirela egunkariaren aurka. Juan Maria Atutxak esana zuen *Egin* erostea "amonaleko 40 gramo erostea" zela. Itxieraren aurretik, lan zikina egon zen kazetaren aurka. *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera baino urte batzuk lehenago, era berean, Joseba Egibarrek esan zuen egunkaria KASek kontrolatzen zuela.

Hainbat liburu argitaratu dituzu azkeneko urteetan. Haietako batean ondo jasoak daude zein diren De Miguel auziko inputatuak. Nor da Alfredo de Miguel? Askok ez dakite, ezta?

Intentzio bat du Alfredo de Miguel nor den ez jakite horrek. Komunikabideetan ez da gehiegi azalerratu bere auzia zertan izan den. Ezkutaketa bat egon da. Klientelismo trama bat dago atzean, eta kontuan hartu behar da Alfredo de Migueli 54 urteko espetxe zigorra eskatzen diotela. Zerbait gertatuko zen. Klientelismo sareak ondo agerian gelditzen dira auzian. De Miguel 2007. urtean Arabako diputatu forala zen, urbanismokoa. EAJK babestu egin zuen amaieraraino. Joseba Egibarren lagun mina zen, De Miguelen abokatua Egibarren iloba da...

Hau ez da kasu isolatu bat. Inplikatu askoren emazteak testaferro gisa agertzen dira. Praktika mafiosoak daudela esango nuke. De Miguelek Ainhoa Alberdi enpresariari honako esaldia esan zion, obra batzuk likidatzerakoan: "Jakingo duzu kaja-tik pasatu behar duzula, ezta". Horrelako mezuak Arabako foru aldundiko posta elektronikotik bidaltzen ziren. Bidegi auzian ere ikusi genuen Gipuzkoako Diputazioko helbide elektronikotatik tankerako mezuak bidaltzen zirela. De Miguarena adibide ona da EAJren egiteko moduak erakusteko.

Urtarrilean hasi zen De Miguel auziaren epaiketa. Komunikabideetan orduan izan zuen tarterik, baina gaur egun ez al dago isiltasuna gaiarekin?

Isiltasuna dago, bai. David Fernandezek aspaldi esan zuen ustelkeria baino okerragoa inpunitate sentsazioa dela. Epaketaren lehen bi egunetan agertu zen auzia hedabideetan, baina ikusita zer jende dagoen inplikatuta ez luke hala behar. EAJren beste zortzi kargu daude inputatuta. Alkateak eta diputatuak daude. Etsigarria da ikustea zer gertatzen ari den. Antzeko ustelkeria auziak telebista kateetako saioak zabaltzeko erabili izan dituzte, baina kasu honetan ez dago halakorik. Asmo jakina dago hor.

El oasis vasco izena du zure liburu batek. Zenbaitetik diote Euskal Autonomia Erkidegoa oasi bat dela.

Zenbaiti oso ondo etortzen zaie pentsatzea EAE oasi bat dela. Batzuentzat oasi bat da, gainera. Klientelismo sarean milaka pertsona daude sartuta. Eroso bizi dira, familian soldata on bat dute guztiek. "Non ez da halakorik gertatzen?", esan ohi dute. Hori da asko konfort egoera batean daudelako. Horrela pentsatzen duten batzuekin ere harritu ginatke. Meatzaldean, bizi naizen tokian, EAJk 40 urte daramatza agintean, eta *cortijo*-ko kudeaketa bat da. Jendeak ez du beste kudeaketarik ezagutu, gainera.

Madrilatik EAJren ustelkeria auziak zabaldu ez daitezela, akordioak al daude PPren eta EAJren artean?

Bai, argi eta garbi. Oroitzen dut duela lau urte PPko Iñaki Oiartzabalek prentsaurreko batean zalantzak plazaratu zituen EAJren finantzaketaren eta batzokien inguruan. Galdetu zuen ea EAJk nola ordaindu dituen bere egoitzak. Aitor Estebanek erantzun zuen epaiketara eramango zutela Oiartzabal, eta gero PPko beste inork ez zuen ezer esan. Salaketarik ez zen egon. Akordioak egon ziren EAJren eta PPren gero. Bidegi auzian ere PP hasieran ikerketa batzorde bat sortzearen alde azaldu zen, baina handik gutxira ezerezean utzi zuten gaia.

Bidegi auziaz liburu bat idatzi zenuen. Labur-labur, zer gertatu zen?

Gipuzkoako Diputazioan Bildu sartu eta urte eta erdira, egiteko modu batzuk aurkitu zituen. Bidegitik eta diputaziotik eraikuntza arloko enpresariei mezuak bidaltzen zizkieten, adieraziz likidazioak nola egin behar ziren. Bidegi auzian, 30 milioi euro desagertu ziren egin gabeko lanetan. Hori izan zen ikertu ahal izan zenaren izebergaren punta. Epailleak bost urteko luzapena eskatu du, ikertzen jarraitzeko. Praktika mafiosoak egon izan dira Gipuzkoan.

Azpiegituretan kontu aipagarriak daude Euskal Herrian. Bizkaiko Supersur errepedeaz zer esango zenuke?

Superzor deitzen diogu guk. 2035. urtera arte dugu zorra, eta luzapen bat egin behar dute

orain, gainera. Errepide horren kostua 900 milioi eurokoa izan zen, kostuak hasieran baino gehiago izan ziren. Hitzaldi batzuetan, baten batek esaten du ea ez dugun ezer egitea nahi edota astoarekin joan nahi dugun. Baina ez da hori kontua. Bizkaian erakusketa azoka bat beharko zen, baina BEC moduko bat beharrezkoa al zen? Lau urtean behin betetzen da. Supersurrek, berriz, ez die beharrei erantzuten. 8-9 kilometro dira, 900 milioi eurotan. Ekologikoki ere eraso handia izan zen. Eta ez du inork erabiltzen. Zulo beltz bat da. EAJ alderdiaren inguruko enpresek negozio ona egin zuten, hori bai. Adibidetzat jarri ohi dut Castelloko aireportua [ez zen inoiz erabili] 150 milioi euro izan zirela, eta horrenbestez, Supersur Castelloko sei aireportu dira. Han ez zeuden hegazkinik, eta hemen autorik ere ez. Astakeri handiak egin dira hemen.

Abiadura handiko trenari dagokionez, inoiz izango al da errentagarria?

Bai, dagoeneko errentagarria da, baina gutxi batzuentzat: betiko enpresarietzat. Zazpi pertsona hil dira lanetan, eta horiek ez dira interesekoak inorentzat. Esklabu baldintzetan ari dira langileak bertan lanean. Xabier Arzalluzek bere memorieta kontatu zuen AHTaren inguruan bilera bat izan zuela aspaldi. Bilera hartan, galdetu zuen ea sozialistek zenbat atera zuten Madril-Sevilla bideko trenean. RENFetik esan zioten sei milioi euro tren bakoitzagatik. Biderkatu hori hogeitrenekin. AHTko lanak enprekin banatu behar zituenean, enpresariei esan zieten zita etxe bat bezala zela kontua: lehenbizi ordaindu, eta gero kontsumitu. Gutxienez %6ko komisioa ordaindu zuten enpresari haiek. Egun lanen kostua %23 ari da handitzen, eta ikusiko dugu zenbatetan aterako den tren.

Kataluniaz hitz egin dezagun. Gabriel Rufian ERCko diputatuarekin liburu bat atera duzu aurten. Zer nabarmenduko zenuke Rufianen diskurtsoetatik eta komunikazio gaitasunetik?

Tipo berezia, oso arrunta, oso majoa. Ikusten duzuen da, edo hobeto. Jendearekin konektatzen asmatzen du. Diskurtso ulerterrazak ditu eta gizartearekin konektatzen du. Kontraesanak izan ditzake, eta baditu. Eta populista dela irudi dezake une batzuetan. Baina daukan jokabidea eta esaten dituenak aintzat hartzekoak dira. Zenbait gai modu didaktikoan plazaratu ditu. Euskal Herrian bera moduko bat beharko genuke. Freskotasuna transmititzen du, eta zuzena da.



Rufianen estilotik aparte, zer dugu Euskal Herrian Kataluniatik ikasteko?

Katalunian bertan aitortu dute askok ez dutela zuzenean ezagutu gurean gertatu dena. Edonola ere, badaude gauzak ikasteko. Prozesua han behetik hasi da, kaletik. Katalunian ere urte luzez klientelismo sareak izan dituzte, Jordi Pujolen garaian bereziki. Eta bestetik, azkenaldian herri sareak egon dira auzoetan eta herrietan: auzolana. Eta tsunami bat eratu dute erabakitzeke eskubidearen alde. Jendeak kaleko dinamiken inguruan hitz egiten dizu, demokrazia, herri bat irabazteaz. Urriaren 1eko erreferenduma iritsi zen, jende askoren kontzientziazioaren ostean. Milaka eta milaka pertsona atera ziren kalera bozkatzera, jipoituak izateko arriskuarekin. Jende horrek argi zuen erabakitzea zela kontua. Halakoak ikasi behar ditugu. Hau ez da unionisten eta independentisten arteko kontua, baizik eta faxistak daude eta demokratak daude. Katalunian argi dute ez diotela utziko kalera ateratzeari.

Euskal Herrian zer behar da horrelako prozesu independentista bat izateko eta gure Urriaren 1a izateko?

Lehen gauza: gogoak. Euskal Herrian dibertsitate handia dago, eta gogoak ez dira igualak toki guztietan. Estatuari bigarren fronte bat ireki beharko genioke, eta luzatzen ari gara hori egin gabe. Berandu goaz. Baina gauden bezala gaude. Anbizioa eta batasuna behar ditugu. Abertzaletasunak erretratatu egin behar du, ez baitago aitzakiarik. Aliantzak artikulatu behar dira, baina ez alderdi politikoaren arloan. Aliantzak arlo sindikalean, erabakitzeke eskubidearen alde, presoen eskubideen alde, gutun sozialean, pentsioetan... Muskulua hartu behar da, borondateak josi. Gainbeheran dagoen estatu horren aurka azaldu behar dugu. Ez dago baimena eskatu beharrik libre izateko, eta ez da barkamena eskatu behar horretarako. Jendeak konfort egoeratik atera behar du, abertzaletasunaren familia guztietako jendeak. Beste fase batean egon beharko genuke orain.

Zure liburuetan eta testuetan kritikarik ez da egoten ezker abertzalearekiko, baina

Bai. Baina kontuan izan behar da hedabideen %95 ezker abertzalea astintzen aritu direla 40 urtez. Eta ideologikoki ez naiz hedabide horien aliatu bihurtuko. Baina esan dezaket askotan ezker abertzaleak, konplexutasunaren egoerarengatik, ez duela pedagogia nahikoa egin gai batzuetan. Baliabideak ere falta izan dira, errepresioaren eraginez. Ustelkeriaren kontuan, ezker abertzalea kritikatu nahiko nuke ahulegi jokatu duelako euskal oasiko ustelkeriaren aurka. Konplexuak kendu behar dira euskal eliteak kritikatzeko. Zuzenagoa izan beharko litzateke. Egon daitezke dinamika batzuk ezker abertzalearen eta EAJren artean erabakitze eskubidearen alde, eta zenbaitek EAJren kudeaketa ez dute kritikatu nahiko. Baina hori akats larria da. Adibide ona da Katalunian gertatu zena: prozesu independentista pil-pilean zegoela, Kataluniako Parlamentuan ikerketa batzorde bat zegoen CIUren ustelkeriaren inguruan. David Fernandez (CUP) zen batzorde horretako presidentea, eta inork ez zuen esan hori guztia bateragarria ez zenik. Ezin dugu beste alde batera begiratu. Alderdiek ezin dute halakorik egin.

Prestatzen ari zaren liburuen artean, Gipuzkoako errausgailuaren kontratuak ikertzen ari zara. Nola laburbilduko zenuke Ainhoa Intxaurrendietarekin eta Iñaki Errazkinekin gertatzen ari dena?

Bi pertsonen bizitzak hipotekatu nahi dituzte, eta ea ez duten lortzen. Bi pertsona horiek herriaren agindua bete zuten, 2011n Bilduk hauteskundeak Gipuzkoan irabazi zituenean. Errausgailua eraikitze kontratuak etetea egokitu zitzaizen biei, eta orain 46 milioi euro ordaintzea eskatzen dizkiete. Hori guztia oharrarazpen bat da: "Dena ondo joango da, gure negozioetan sartzen ez zareten bitartean, gure azpiegituren eraikuntzetan sartzen ez zareten bitartean". Errausgailuaren inguruan zegoen mafia guztiaz idazten ari gara Intxaurrendieta eta biok. Durangoko Azokarako egongo da liburua. Bidegirekin ere antzekoa gertatu zen, eta Larraitx Ugarte eta Martin Garitano mehatxatu zituzten.

Jende askori min egiten dio errausgailuaren kontratuak sinatzen direnean, EAJko arduradunek eta bankuetakoek luxuzko jatetxeetan egiten dituztela otorduak diru publikoarekin. Angulak jaten. Prekariatatean eta langabezian dagoen jendearentzat ez al da gogorra hori?

Bai, hori harrokeria da. Bazkaldu, eta gero afaldu egin zuten. Urte askotan egin dute hori. Eta mespretxua adierazten du. Klase ahulenekiko mespretxua. Gizartearekiko mespretxu handia dute. EAJk Donostiako Aiete auzoan egoitza bat du, bunker bat, eta hortik diseinatzen dute kudeaketa aspaldidanik. Talaiak perfektu bat da, eta boteretsu sentitzen dira, goitik begiratzen dute herria.

Tasio marrazkilariarekin ari zara liburu bat prestatzen. Nolakoa izango da?

EUstelkeria izena izango du. Euskal Herriko hainbat ustelkeria auzi agertuko dira, *tragaperren* auzitik hasita. Oasi hau zertan izan den gogoratuko dugu. Eta pedagogikoa izan dadin, testu gutxi izango du eta marrazki asko. Durangon izango dugu salgai.

Cabacas auzia ere ikertzen zabilta, ezta?

Bai, urrian hasiko da epaiketa, eta zer gertatzen den jasoko dugu liburuan. Otsailerako prest

izatea espero dugu. Sufrimendu handia eragin die auziak Iñigo Cabacasen senideei eta lagunei.

Etzi.pm aurrera begira jartzen denez, nola ikusten duzu Euskal Herria hamar urte barru?

Gustatuko litzaidake prozesu ireki bat egotea, gure euskal errepublika independentea eraikitzeko. Bidea luzea izango da. Baina zutabe egonkorragoak izango ditugula espero dut, erabakitzeko eskubidea gauzatzeko. Horretan egongo gara, eta bidea egonkortzen.

Kazetaritzaren ikuspuntutik, ikerketa kazetaritza egiteko gogoz zaude etorkizunari begira?

Bai, bai. Ikertu, liburuak idatzi, hitzaldiak eman. Zaila da, denbora asko behar duzu, baina pozik nago. Nire bizitza aldatu nuen, eta konbentziturata nago egiten ari naizen honetan. Memoriaz ere aritu nahi dut. Gertatu dena jendeak ulertzea nahiko nuke. Bataila emateko gogoz nago.

Hamar urte barru elkarrizketa errepikatzen badugu, non egin nahiko zenuke?

Meatzaldean egingo genuke. Periko Solabarria gogoratuko genuke, Arboledara igoko ginateke, eta babarrun batzuk jango genituzke gero.

Zabaldu:



- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)